



59. zk 2014ko maiatza

Berbarotarra



**Berbarok
25 urte**

BERBAZ BERBA,
ARAZ ARO

Mende laurdeneko bidaiaren ostean, Berbaro elkarteak bidean jarraitzen du

Bidelagun guztiei eskerrak emateko eta etorkizunari begiratzeko parada izango da urteurrena

Bidean jarraitzen dugu, 1989an hartu genuen trenean. Bidaia-hasiera hartan guztiz bestelakoa zen paisaia: beste testuinguru bat, beste Durango bat, beste Berbaro bat... Bestelakoak ziren, halaber, orduko bidaideak: batzuk motxileroak, euskararen inguruko jakintza urriak lepoan hartuta; beste asko bagaje bakoak, intuizioz jardun zutenak. Bestelakoa zen trena bera ere, mende laurden honetan garaian garaia egokitu garelako. Baina helmuga, egun ere, berbera da: Durango euskalduna lortzea.

Bidean jarraitzen dugu, trenbideko trabek eta haize-bolada zakarrek ez dutelako gure trena gerarazi. Aurrera goaz, lehenengo eguneko abiadaz. Oraindik ilusioz eta gogoz. Bidean hamaika geltoki igaro ditugu, eta bidaiari batzuk jaitsi egin dira. Agur egiten ikusi ditugu, beste askori ondo-etorria egiten genien bitartean. Atzean geratu ziren *Eraz* aldizkaria eta Berbaro taberna, 89ko makina hartako bagoi esanguratsuak. Baina *Anboto* as-tekaria eta Plateruena kafe antzokia lotu dizkiogu, egungo trenean ezinbestekoak.

Bidean jarraitzen dugu, eta urteurrenaren parada aprobetxatu gura dugu atzean utzitako paisaiari argazkia ateratzeko, orain arte egindako guztia aztertzeko, gurekin izan diren bidaide guztiei eskerrak emateko, orduko ikatza pizten eta egungo argindarra sortzen egin duten lan esker-ga aitortzeko. Eta, bide batez, etorkizunak zer dakarren ikusteko, zerumugan ageri denari beste modu batean erreparatzeko, 25 urteko bidaia honetaz disfrutatzen.

Bidean jarraitzen dugu, eta ez da gutxi. Bidean jarraitzen dugu, eta aurrera goaz. Bidean jarraitzen dugu, eta helmuga bertan dugu.


Eskerrik asko, bidelagun!

Maiatzaren 7ko urtemugaren aurkezpenera jendetza hurreratu zen

Maiatzaren 7ko urtemugaren aurkezpenera jendetza hurreratu zen

Berbaroren 25. urteurrenaren aurkezpen ekitaldira jendetza batu ginen. Hitzak, musikak eta marrazkigintzak bat egin zuten maiatzaren 7ko iluntzean. Ekitaldira hurbildutakoek Eider Alberdik diseinatutako berbaroren irudi berria ezagutzeko parada izan zuten; horrez gain, adi erreparatu zioten Eider Eibar ilustratzailearen lanari. Izan ere, zuzenean margotu zuen mihise batean

beren-beregi Berbaroren 25. urteurrenerako diseinatutako ilustrazioa. Ekitaldiari musika jartzearen ardura Gehi zazpi biolontxelo taldearena izan zen. 130 lagunengatik adi irudiari, eta berlarriak zuhur hitzei eta musikari. Ekitaldi epela eta lagunartekoa izan zen. Hurrengo zita maiatzaren 24an dugu, goizetik hasita egun osoko ospakizuna izango baita.



Berbaroren 25 urteko ibilbidea ilustrazio batean irudikatuta

Eider Eibar ilustratzaile zorrotzarrak Berbaroren 25. urteurrena gai hartuta sortu du beheko ilustrazioa. 25 urteko bideak ematen duen esperientzia, eta, aldi berean, iraganeko bizipenek ematen duten indarra batu ditu irudian. Etorkizuna eraikitzeko iraganaren garrantzia nabarmendu nahi izan dugu mende

laurdenaren bueltan. Horregatik, oinarri berarekin, baina kolore berriz eta irudi berriz gatzoz berbarotarrak. Orain arte bizitakoak eta bidelagunak gurekin daramatzagu, eta etorkizunari ilusioz begiratzeko diogu. Esateko eta aldatzeko asko daukagu oraindik, eta bozgorailuak ez ditugu lehenengoan amaitutako.



25 URTE
BERBAZ BERBA,
ARAZ ARO

Urteurrenaren aitzakiarekin marka estreinatuko dugu

Irudi berriak egungo Berbaro azaleratzen du

Berbaro betikoa da, baina gaurkotu egin gara.

Lehenengo koloreetatik gaurko koloreetara. Lehenengo karratutik gaurko borobilerara. Ez gara gazteak eta ez gara zaharrak, baina indar berrituta gatzoz eta horren erakusle da gure irudi berria.

Ez dugu iraganarekin apurru, baina etorkizunerako leihoa zabaldu dugu parez pare. Aldaketek arrazoiren bat izaten dute beti atzean, eta gurean aitzakia hoberik ezin aurkitu: 25 urte, bejondeigula! 25 urte ez ditugu berriz beteko eta igarri dadila.

Berberorekin bizi izan dituzuen une gogoangarriak argitaratzen ari gara

Berberok 25 urte bete ditu aurtengo maiatzean. Sortu zenean, inork ez zekien gaur, oraindik, hemen ibiliko ginela gure herrian eroso sentitzeko lekua egiten. Horretan jardun izan dugu urte hauetan guztietan, eta bidean ha- maika abentura, bitxikeria, gora- behera, emozio eta abar bizi izan ditugu. Bizipenak nonahi. Horixe eskatzen dizuegu, Berba- roekin bizi izandako une gogoan-

garriak gura duzun formatuan guri bidaltzea web gunean argita- ratzeko helbide honetara:

• berbaro@berbaro.com edo
Berbaro elkarte
Pinondo Etxea
48200 Durango

Orain hasi eta udako oporrak arte, aste bakoitzean pare bat bi- zipen argitaratzeko asmoa dugu.



Izan daitezke:
Testu laburrak argazki bati loturikoak /
Argazkiak azpituarekin / Testu luzeagoak /
Bertsok edota olerkiak / Besterik



Maitte Gerenabarrena. ERAZeko proba batzuetara aurkeztu eta horrela lortu nuen nire lehen lan- postua. BERBAROko zuzendaritzakoak izan ni- tuen epaimahai. Berbaro eta ERAZeko bitartekari lanak "Txapelek" egiten zituen. Oraindik be Txapelek berak jarritako etiketa daukagu "ERAZeko neskak". Beraz, lan merkatuan "modu xumean"

sartzeko aukera izan nuen ERAZi esker, eta gai- nera, harrezkero izan ez dudan lan-talde zora- garri bat ondoan... Danok danetarik eta hori oso aberasgarria zen; herri batetik bestera norbere grabagailu eta argazki kamararekin... Eta hor ze- goen Segun, bere irudimen eta goxotasunarekin, ingurukoak kutsatzen. Familia txiki bat ginen.

Pedro Pablo Arrinda. Behin, gogoratzen naiz nola martxan jarri nahi genuen Haur Literatura Aretoa, eta dirua behar zen. Batetik bestera ibili ondoren, azkenean automobilen enpresa batekin harremanetan hasi ginen. Gure pozerako, enpre- sa honen kudeatzaileak nahi zuen "sponsor" be- zala bere enpresa bakarrik egotea, beraz, behar zen ia diru guztia berak jarriko zuela esan zigun. Hor bere harridura kartela eta egitaraua ikusi zi-

tuenean! Instituzio guztien logotipoak jarrita zeu- den eta bazirudien enpresakoa beste instituzio batekoena zela. Haserretu zen; azkenean, bar- kamena eskatzeaz batera, zuzendaritzako kide bati gazta batzuk eroatea bururatu zitzaion, eta horrela baretu zen.

25 urte pasatu ondoren, egiteko eta kudeatzeko antolaketak asko aldatuko ziren, baina aldatu al da pasadizo honen mezua?



Uxune Martinez. 2004ko azaroaren 30a izan zen nire azken laneguna Berbaron, beti izango dut gogoan. Hiru urte arinago hasi nintzen bertan. Ezin ditut ahaztu ere ideiak errealitate bihurtzeko gaitasuna zutenak. Berbaro bera, *Erazeta Anboto* astekariak, Di-da eta Antzokia irudikatu eta aurrera eramateko gai izan ziren hainbat aurpegi

bizi eta pertsona ekinak. Errealitatea lantzeko alboan egon diren bazkideak eta lagunak. Ehundutako sarearen parte guztiak. Egun, garena gauza txikiz eta handiz osatuta dago. Esperientzia txikiz eta handiz jantzita gaude. Naizen honetan Berbarok badu zerikusia, berak jantzi bainau. Eta hori eskertzeko ez dut berba nahikorik.

Markel Zugaza-Artaza. Berbarora joaten gare- nean beti hartzen gaituzte besoak zabalik, beti irrifarrez eta proiektuen berri ematen digute guk parte hartzeko; bisitan joatea gustuko dugu. Ekin- tzaren bat edo uda lekutan joaten garenean, oso gustura sentitzen gara, familian... Begiraleak beti laguntzeko prest, goxotasunez tratatzen gaituzte, oso ekintza dibertigarriak prestatzen dituzte eta beti euskararen alde ari dira.

Gehien gustatu zaigun tokia Mendigorria izan da, gure lehen udalekua. Ez genekien zer egingo genuen, nolako giroa egongo zen, zelan pasatuko genuen, zelako tratua izango genuen..., baina gal- dera eta kezka guztiak baztertu genituen autobu- sera igo bezain pronto. Hortik aurrera etorri dira beste guztiak. Gutxien gustatzen zaiguna udaleku edo ibilaldiko azken eguna da, pena ematen digu amaitzeak.



Maiatzaren 24an ospatuko dugu 25 urteko ibilbidea lagun eta bazkideen artean

Ospakizun berezia egingo dugu egun osoko egitaraua antolatuta

Maiatzaren 24a aukeratu dugu Berbaro elkartearen urtemuga-festa ospatzeko. Izan ere, Berbarok maiatzean ikusi zuen argia, duela 25 urte.

Mende laurdena betetzeak ospakizun berezia merezi duela-eta, egun osoko egitaraua antolatu dugu. Hasteko, Berbaro Durangaldean ume eta gazteen aisialdi euskalduneko erreferentea denez, goiz partea etxeko txikienei eskainiko diegu. Hala, tailerrak eta jolasak egingo dira Andra Marian. Olgetan ere bertaratuko da, halako egun batean ezin da falta-eta.

Ondoren, jai guztietan bezala, ez da jatekorik ez eta edatekorik faltako. Eguerdian, festan murgiltzeko aukera egongo da kantu-potoan. Alde Zaharrek kaleak girotuko ditugu Kantulaguneko kideekin batera. Betiko kantuak, bertsoak eta koplak ahotan ditugula, Plateruena kafe antzokiraino iritsiko gara. Han bazkari herrikoia egingo dugu lagun artean. Nahi duenak, dagoeneko eskuragarri ditu txartelak Berbaroko egoitzan eta Plateruenean, 15 euroan nagusiek eta 10 euroan umeek eta gazteek.

Bapo-bapo bazkaldu eta ur-

sarrerak eskuragarri daude Berbaron eta Plateruenean

teotako bizipenak elkarrekin partekatu ostean, ekitalditxo bati emango diogu tartea. Horren bidez, eskerrak eman nahi dizkiegu urte hauetan guztietan gure alboan izan direnei, elkarteak bidea egin dezan lagun dutenei, berbarotar denei. Sorpresaz berteriko bazkalondoa izango dugu, eta giro polita sortuko

da, barre eta algara artean. Iluntzean, beste osteratxo bat egingo dugu Alde Zaharrera, jai Durangon zehar zabalduz. Oraingoan, tinbal, maraka eta danbor hotsek astinduko dituzte kale eta gorputzak, batukada batek. Eta gauean, erritmoari eusteko, DJ Bullen emanaldia izango da Plateruenean. Euskal musikaren akelarre horrek goizalderaino iraun dezala!

Jai honetan gurekin egon zaitezten gura dugu, Berbaroko 25 urteotako historian partaide izan zarenez, zeuk ere baduzulako zer ospatu. Beraz, animatu eta parte hartu!

Berbaz berba, aroz aro, dantzaz dantza, tragoz trago. 25 urte baitira igaro ospatu dezagun luzaro, zu baitzara zu Berbaro!



Eraz
Zure astekarixe!